

# ASTEKLIMA GETXO 2025

Klima eta Energiaren Astea  
Semana del Clima y la Energía


Urriak 18-24 Octubre



**Getxo**  
bizi ezazu

Ingurumena  
Medio Ambiente

SUBVENCIONADO POR:



Urriaren 18tik 24ra, Asteklima Getxo ekimenaren edizio berri bat antolatuko du Getxoko Udako Ingurumen Unitateak. Horrenbestez, klima-aldaketarekin lotutako jarduera ugari egongo dira astebez, herritarrak kontzientziatzeko eta gure planetak aurrez aurre dituen erronkak ikusarazteko.

Iaz, Getxo saritu zuten "Familiako Klima tailerrak" jarduera antolatzeagatik. Ekimen horrek klima-aldaketaz modu dibertigarrian jabetzeko aukera eman zion familia osoari, sormenezko tailerren bidez.

Aurten, jarduera berri asko izango dira aukeran. Besteak beste, busti gabeko urpekaritza-saioa (360 graduko esperientzia murgiltzailea urpean), erleen munduan barneratzeko eta ezta dastatzeko esperientzia, askotariko tailerrak (biomaterialak, barazkien hartidura...), liburu-trukea eta askoz gehiago.

Halaber, energia jasagarriaren onurei eta klima-aldaketaren ondorioei buruzko bi hitzaldi izango dira, eta bi ibilbide: batak gure kostaldea giza jardueraren eraginez nola aldatu den erakutsiko digu, eta besteak Gobela ibaia beste modu batean behatzeko aukera emango digu.

Laburbilduz, sormenez, ikasteko aukerez eta dibertimenduz beteriko astea biziko dugu.



**IZEN EMATEAK:** Telefonoz: **605 74 90 64**. Posta elektronikoz: [asteklimagetxo@gmail.com](mailto:asteklimagetxo@gmail.com) (aukeratutako jarduera, izen-abizenak eta telefono-zenbakia adierazita). Jarduera guztiak doakoak dira.

ASTEKLIMA GETXO JARDUERAK

**ASTEKLIMA 2025**  
Euskadiko Klima eta Energiaren Astea  
Semana del Clima y la Energía de Euskadi

## LARUNBATA 18 - ASTEKLIMA AZOKA

10:30etik 15:00etara / 16:00etatik 18:30era - **ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA**.  
Euskadiko ASTEKLIMA ekimenaren azoka ibiltari eta ludiko honen helburua gizartea klimaren alde mobilizatzea da. **7 karpa tematiko eta jarduera interaktiboen bidez**, klima-aldaketaren ondorioak ezagutuko ditugu, etxean zein beste egoera askotan (mugikortasuna, aisialdia edo kontsumoa) ohitura iraunkorrak har ditzagun.



**EURIA EGITEN BADU, SAN NIKOLAS PLAZAKO PILOTALEKUAN EGINGO DA (ALGORTA)**



## IBILBIDE NATURALISTA GOBELA IBAIAN BARRENA (10 urtetik gora)

09:30etik 13:00etara - **AREETAKO GELTOKIA PLAZA**.  
Ibilaldi gidatua Gobela ibaiaren arroan barrena, Amador Prieto eta Xabier Buenetxea naturalisten gidaritzapean. Getxoko gune ezagun honen ikuspegi ezberdina eskainiko digute. **IZEN-EMATEAK:** [boluenatura@gmail.com](mailto:boluenatura@gmail.com)

## "GIZA AZTARNAK AZKORRIKO KOSTALDEAN" IBILBIDEA

**IZEN-EMATEA**

10:30etik 12:00etara - **AZKORRIKO APARKALEKUA**.  
Getxoko kostaldean zeharreko ibilaldi honetan, industriak, espezie inbaditzaileek eta klima-aldaketak paisaia nola eraldatu duten antzemango dugu.

## IGANDEA 19 - KLIMA TAILERRAK. JOLASAK ETA ESPERIENTZIAK FAMILIARTEAN

11:00etatik 15:00etara - **AREETAKO GELTOKIA PLAZA**.

Hona hemen gure planetaren zaintza sustatzeko hainbat jarduera. Gogoratu Lur bakarra dagoela eta hura babesteko betebeharra dugula:

- **Urpean, busti gabe:** jarri 3D betaurrekoak eta murgil zaitetz Ozeano Atlantikoko uretan munduko itsasoak modu berritzaile eta iraunkorrean arakatzeko.
- **Erleen magia:** Bi txandako jarduera honen bidez erleek ingurumenerako duten garrantzia ezagutuko dugu. Abaraskan nola egiten duten lan ikusiko duzu, ezti freskoena dastatuko, eta erlezainek erabiltzen duten ekipamendua ezagutuko.
- **Margotu txorientzako etxe bat** eta ikusi zeinen dibertigarria den natura zaintzea artelanak sortu bitartean.
- **Egin hazi-bola bat loreontzietan** bizi sortzeko, biosorkuntza naturala bultzatzeko eta biodibertsitatea sustatzeko... **eta aritu beste jolas askotan!**



# ASTEKLIMA GETXO JARDUERAK

## ASTELEHENA 20 - LIBURU-TRUKEA



**12:00etatik 13:30era - AREETAKO GELTOKIA PLAZA.** Trukatu liburuak istorioei bigarren bizitza emateko, irakurketa partekatua sustatzeko eta baliabideen kontsumoa murrizteko. Horrela, ingurumena modu erraz eta dibertigarrian zaintzeaz gain, irakurgai berriak ezagutzeko aukera dugu.

## EHUN-GAIEN UPCYCLING-A

**18:00etatik 20:00etara - VILLAMONTE KULTUR ARETOA.** Arropa birziklatzea aukera jasagarria da modaren munduan. Eman izena tailer honetan eta ekarri eraberritu nahi duzun arropa. Pintura, estanpatuak, txantiloak eta beste teknika erraz batzuk erabilita, bigarren bizitza emango diozu!



**IZEN-EMATEA**



**IZEN-EMATEA**

## ASTEARTEA 21 "HOBETU ZURE ETXEKO ETA ENPRESAKO ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA" HITZALDIA

**18:00etatik 20:00etara - GETXO ELKARTEGIA.** Klima-aldaketari aurre egiteak ekonomian eta ingurumenean dituen onurak ezagutzeko eta herritar, enpresa eta komunitateei trantsizio energetikoa egiten laguntzeko tailerra. Eraginkortasuna eta jasagarritasuna hobetzeko metodoak (hala nola energia aurrezteko ziurtagiriak eta beste laguntza batzuk) eta itzulera ekonomikoa duten neurriak zehaztuko dira (isolamendu termikoa, leiho eraginkorrak, berokuntza eta mugikortasun jasagarriak, etab.).

## BIOMATERIALEKIN EGINDAKO ESPERIMENTUAK

**18:00etatik 20:00etara - VILLAMONTE KULTUR ARETOA.** Ikasi ikertzen eta biomaterialak modu errazean sortzen. Hainbat konbinazio eta prozesu arakatuz, osagaiak elkarrekin nahastean nola jokatzen eta erreakzionatzen duten ikasiko duzu. Gainera, esperimientuen bidez, eguneroko bizitzan aplika daitezkeen material iraunkorrak eta funtzionalak fabrikatzeko hainbat era erakutsiko dizkizugu.



**IZEN-EMATEA**



**IZEN-EMATEA**

## ASTEAZKENA 22 HARTZITUTAKO BARAZKIEN ETA OZPINETA KOEN TAILER TEORIKO-PRAKTIKOA

**18:00etatik 20:00etara - VILLAMONTE KULTUR ARETOA.** Ezagutu Kimchi metodoa, Koreako hartxidura-teknika tradizioaletan

jatorria duena. Mikroorganismo onuragarrien bidez, hondakin organikoak ontzi hermetikoetan hartzitu eta konpostatzen dira. Elikagaiak aprobetxatzeko modu iraunkorra eta eraginkorra da. Parte-hartzaileek bi poto (500 ml) eta gida bat eramango dituzte etxera, bertan hartxidura-prozesuarekin jarraitzeko.

## TAILERRA: BARATZEA LOREONTZIAN, FURGOBARATZA-REN ESKUTIK

**18:00etatik 19:30era - AREETAKO GELTOKIA PLAZA.** Furgobaratza-k eskaintako tailerra. Zerbitzu ibiltari honek autokontsumorako baratzeen inguruko aholkuak ematen ditu, kultura ekologikoa sustatzearren. Tailerlean, loreontzi, substratu eta ureztatze- eta ereite-teknikei buruzko ezagutza eskuratuko duzu, etxean baratze txiki bat sortzeko.



**IZEN-EMATEA**

Getxo  
Zereaintza

FCC  
MEDIO AMBIENTE, S.A.U.  
VTR VALORIZACIÓN Y  
TRATAMIENTO DE RESIDUOS, S.A.

## OSTEGUNA 23 - LIBURU-TRUKEA

**12:00etatik 13:30era - ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA.** Ekarri liburu bat eta eraman beste bat irakurtzeko. Partekatu istorioak, sustatu irakurketa eta zaindu planeta.

## HITZALDIA: KLIMA ALDAKETAREN ORAINGO ETA ETORKIZUNENKON OINDORIOAK

**IZEN-EMATEA**

**18:00etatik 20:00etara - GETXO ELKARTEGIA.** Gure planeta arriskuan dago. Hitzaldi honetan, krisi klimatikoari buruz mintzatu gara: haren kausak, jada jasandako eraginak eta ez ikusiarena egin ezin zaien beste seinale batzuk. Datu berriek etorkizuna zalantzarazko izango dela adierazten dute, eta baliteke iraganetik ikasitakoa neurriak hartzeko azken aukera izatea.

## OSTIRALA 24 - TINK HERRIA

**18:00etatik 19:30era - VILLAMONTE KULTUR ARETOA.** Eraiki etxe bat material birziklatuekin. Zirkuitu elektriko errazak sortzen eta energia berriztagarriak (etxe argiak, txirrina, eguzki-plakak...) erabiltzen ikasiko duzu. STEAM esperientzia honek sormena, iraunkortasuna eta jostaketa uztartzen ditu. Amaitzeko, etxebizitza guztiak elkartuko ditugu herri argiztatu bat sortzeko!



**IZEN-EMATEA**



**IZEN EMATEAK:  
Telefonoz: 605 74 90 64**

Posta elektronikoz: [asteklimagetxo@gmail.com](mailto:asteklimagetxo@gmail.com)  
(aukeratutako jarduera, izen-abizenak eta telefono-zenbakia adierazita). Jarduera guztiak doakoak dira.

## LARUNBATA 18. GETXOKO INGURUMEN ARETOA JARDUERAK

### KLIMA ALDAKETARI BURUZKO ESPERIMENTUAK FAMILIAN.

6 urtetik gorako haurrentzat eta haien familientzat egindako jarduera da. Aretoko hezitzaileak 4 esperimentu egingo ditu klima-aldaketa lantzeko, zerk eragiten duen eta zer neurri har ditzakegun hausnartzeko. Gainera, familiek airearen kutsadura-neurgailu propioa sortu ahal izango dute etxera eramateko.

Bi txanda egingo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era. Beharrezkoa da aldeztu aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea.

**IZEN-EMATEAK ETA INFORMAZIOA: 688 88 35 96  
[www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)**